

**AZPIEGITURAK.** Priorite TGVk batzar nagusia egin du Bilbon

JON HERNANZ / ARGAZKI PRESS

**Ekonomia taldeen «presioa» salatu du AHT Gelditu!-k**

Priorite TGV Atlantikoko ardatzean Abiadura Handiko Trena sustatzen duen elkarteak bilera egin zuen, atzo, Bilboko Nazioarteko Erakustazokan. Bilera horren kontra protesta egiteko, AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek kontzentrazioa egin zuten eguerdian. *Priorite TGV edo negoziazioa? Ez hemen ez inon. AHTrik ez zioen pankartaren atzean*

izan ziren, besteak beste, Niko Moreno Elorrioko alkatea eta Dabi Alonso Sozialista Abertzaleak taldeko Bilboko zinegotzia. Mila Elorza Angiozar-ko AHT Gelditu! taldeko kideak adierazi zuenez, atzoko bilerak helburu bi baino ez zituen: «AHTren proiektua bizkortzeko presioa egitea eta udalak egitasmora erakartzea».

# Ibarretxek dio Jaurlaritzak Abiadura Handiko Trenaren egitasmoa abiatuko duela

Atzerapen gehiago onartzeko prest ez dagoela esan zion erakundeko arduradunari

Humberto Unzueta | BILBO

Ibarretxe lehendakariak «Euskal Herriarentzat oso garrantzitsutzat» jo zuen Abiadura Handiko Trena (AHT), eta Madrilek eta Parisek egingo dutenari «itxaroteko prest ez» dagoela adierazi zuen, atzo, *Priorite TVG Sud Europe Atlantique* erakundearen biltzar nagusian.

Ardatz atlantikoko tren azpiegiturak bultzatzeko iragan ekainean sortu zen elkarte, eta Bilboko Erakustazokan elkartu zen, atzo arratsaldean. Portugaldik Akitanian bitartean sartzen diren herri eta eskualdeetako zenbait erakunde politiko eta ekonomikok osatzen dute presio talde gisa sortutako mugaz gairako erakunde hori.

*Priorite TVG* bigarren aldiz elkartu zen atzo, eta kide berriak batu ziren bertara, tartean Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Merkataritza Ganberako arduradu-

nak eta baita Frantziako zenbait diputatu ere.

Batzarraren aurretik, Jaurlaritzako lehendakaria erakunde presidenten Alain Roussetekin elkartu zen, eta AHTren atzerapenak «kezkatu» egiten duela adierazi zion: «Gure herriaren ongizate eta hazkunde ekonomikoari begira egitasmo hori oso garrantzitsua dela adierazi diot, eta jakinarazi egitasmoari ekiteko ordua dela».

**Madrilen borondate politikoaren menpe**

Atzerapenaren aurrean, ardatz Atlantikoko eskualdeek «indarrak batzea» erabaki dutela esan zuen Ibarretxe lehendakariak. Erakunde bere interesak Paris, Madril eta Europako erakundeen aurrean «babesteko» sortua dela aitortu bazuen ere, Ibarretxek ez zituen aipatu egitasmoaren atzerapenaren arrazoiak.

Jaurlaritzako iturriek, baina,

«Madrilgo borondate politikorik ezari» egozten diote proiektuaren blokeo egoera. Iturri bertsuek diotenez, Madrilek eta Parisek, tren azpiegiturari dagokionez, «Mediterraneoko ardatza hobetsi dute», eta, horrenbestez, Akitania, Euskal Herria, Gaztela eta Leon, Galizia eta Portugal lotzen dituenak bigarren mailako tratamendua hartu du.

AHTren egitasmoa etengabe ari da atzeratzen urteetan. Ibilbidea finkatuta eta esleipenak eginda dauden arren, lanak ez dira oraindik hasi, eta, gainera, ez dago horretarako egunik zehaztuta. Finantzaideari dagokionez, Jaurlaritzako iturriek esan zuten «Europako kohesio funtsen bitartez» egitasmoaren %80 finantza daitekeela.

Horren haritik, Roussetek jakinarazi zuen Akitanian «egitasmo orokor horrentzat finantza-bideak bilatzeari» ekin diotela. Erakundeko presidentek Abiadura Handiko Trenaren egitasmoaren garrantziaz ohartarazi zuen, eta Europako erakundetara joko duela iragarri zuen.

**JARDUNALDIAK**

## Babesik gabeko ia 1.000 adingabe artatu zituen iaz Gizartekintzak

Nagore Rodriguez | DONOSTIA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuak babesik gabe zeuden 345 haur eta gazteren egoeraren berri jaso zuen iaz. 2000. urteko datuekin alderatuz, %36 gehiago. Guztira, Gipuzkoan, babesik gabe zeuden gazteak 932 ziren.

Familia girotik aldendu gabe, 200 haurrek jaso zuten Gizartekintzaren babesa; bestalde, 265 gazte beste familia batzuek hartu zituzten. Egoitzetan, berriz, 387 adingabe jaso zituzten. Gipuzkoan 17 urte bitarteko 105.918 haur eta gazte daude, hiritar guztien %15,73.

Gizartekintzak, bestalde, 8.585.910 euroko aurrekontua du aurten, 1998. urtetik %106,15eko igoera izan du. «Adingabeen ongizatean inbertitzea etorkizuneko gizartean inbertitzea da», Gizartekintzako diputatu Maximo Goikoetxearen arabera.

Iazko datuak eta Gizartekintzaren hurrengo urteetarako planaren nondik norakoak azalduko dituzte Umeen Babeserako Europako

jardunaldietan. Ostegun eta ostiralean egingo dira jardunaldiok Donostiako Kursalean, eta bertan, 600 aditu baino gehiago elkartuko dira; gizarteko babesik ez duten haurren arazoak konpontzeko Europar erabiltzen diren estrategien inguruan arituko dira, besteak beste.

**2005 bitartean plan berria**

Goikoetxeak 2005era bitartean Gizartekintzak haur eta gazteak zaintzeko egin berri duen plana azalduko du jardunaldietan. Planaren helburu nagusiak bi dira: bate-tik, zerbitzu publikoen bidez, babesik gabe dauden gazteen garapena ziurtatzea; bestetik, Gizartekintza eta gainerako zerbitzuen arteko elkarlana bermatzea.

Tratu txarren kasu gehien berri izatea bermatu nahi dute planarekin. Horrekin bat, lehentasuna emango diote adingabea familiarekin mantentzeari. Familiarekin geratzeko aukera ez dagoenean, beste alternatibak bideratuko dira: Familia harre-ra programa eta egoitzak.

**HILKETA**

## 'Acua' kasuaren alde denek egin eskaerei eutsi diete

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Epaiaren zain geratu zen atzo eguerdian, Gasteizen, Acua tabernan gertatutako Ana Rosa Agirrezabalaren hilketari eta bortxaketari buruzko epaiketa.

Atzoko saioan auziaren alde guztiek eutsi egin zieten hasieran egindako eskaerei: fiskalak 12 eta 18 urteko kartzela zigorrak eskatu zituen G.F.B.-ren aurka, hurrenez hurren, bortxaketa eta hilketagatik, gehi 90.000 euroko kalte-ordaina familiarentzat; akusazio partikularrak, berriz, 12 eta 20 urtekoak aipatu zituen, gehi 180.000 euroko kalte-ordaina; defentsak absoluzioa aldarrikatu zuen.

Fiskalak eta senideen akusazioak bat egin zuten argudioak azaltzean. Izan ere, biek ere ukatu zuten akusaturiko drogatuta egoteak erantzukizuna murrizten dionik. Bestetik, G.F.B.-ren kontrako «frogak argiak» direla na-

barmendu zuten; adibidez, tabernan topatutako arrastoak akusatuaren oinetako batzuen berdinak direlako eta akusatuaren jantzi batean aurkituriko erakusgarri zelularrak biktimarenak izaki.

Ez zen topatu, ordea, akusatuaren hazirik biktimaren gorpuan, nahiz eta auzi-medikuek egiaztatu zuten Agirrezabalek sexu eraso jasan zuela (uzkitik izan zen, baina ez da frogatu zakilak edo objektoren batek eragin zion).

Defentsaren aburuz, frogak ez ziren aski izan. Leku-koen testigantza Ertzaintzaren ikerketa ildoaren arabera aldatu zela salatzen, eta akusatuak aurretik gertatutako beste bortxaketa bategatik preso izateak oraingotan ere erruduntzat hartu nahi izateko eragin duela erantsi. «Frogek diote (akusaturia) tabernan egon zela, baina ez egin zuela», arrazoi-tu zuen abokatuak.